

1 artikulua : Gaia

Kiroldegia herriko kirol aktibitatea praktikatze eta herriko elkarbizitzaren laguntza eta garapenerako tokia da.

Kirol gunearen helburu nagusia Azkaineko herrian aktibitate fisikoa eta kirol jarduera garatzea eta bultzatzea da.

Ikastetxeei, kirol-elkarteei, biztanleei eta beste edozein erakunderi prestatuko zaie, herriari idatziz galdetu ondoren.

Horiek hola, arau batzu beharrezkoak dira elkarbizitza ahalik eta baldintza onenetan segurtatzeko.

Kirolariak, laguntzaileak, hezitzaileak, ikusleak, gurasoek herritartasuna erakutsi behar dute eta arau etiko batzuk errespetatu.

2. artikulua : Ekipamenduaren izendapena eta deskribapena

Kiroldegia hainbat espazio ditu :

1) ERP X motako egoitzak

- ✓ Ezker pareta
- ✓ Erabilera anitzeko gela
- ✓ Bilkura gela
- ✓ Muskulazio gela
- ✓ 80 lekuko ospakizun gela, karga igogailu eta komunekin
- ✓ Azkartze gela bat
- ✓ Altxatzeko 10 gune
- ✓ Tenis klubeko *club house* gunea
- ✓ 6 garbigela
- ✓ 6 aldagela

2) ERP PA kirol eremuak

- ✓ 2 Errugbi zelai
- ✓ 2 igerileku
- ✓ Atletismo pista bat
- ✓ Boletako 2 eremu
- ✓ 4 tenis zelai
- ✓ Luzera-jauziko 2 gune
- ✓ Jaurtiketa kaiola 1

Denentzat eskuragarria den (DAE) kanpoko bihotz desfibrilagailu automatiko bat bada kiroldegian, bihotzekoei aurre egiteko.

3.artikulua : Irekitze ordutegiak

Kiroldegia irekia da astelehenetik igandera, goizeko 07:00etatik gaueko 23:00etara. Urte osoan irekia izango da.

Ordutegi horiek aldatzen ahalko dira, salbuespen gisa, herriko etxeak hala erabakitzen badu ; publikoa eta erabiltzaileak jakinean atxikiko dira afitxaketaren bidez kiroldegia irekitzeko.

Ordutegi horiek depasatu behar izanez gero, eskaera bat egin daiteke herriko etxeko zerbitzuari helbide elektroniko honetara idatziz: **direction.sport.jeunesse@mairie-ascaïn.fr**

4.artikulua : Egoitzen eta kirol eremuen esleitzea

Kirol eremu eta guneen erabilera urrik egiten da 1901 legeko elkarreentzat, eta pagatuz enpresentzat, gizarte eta ekonomia batzordeentzat, baita ordutegi bat erreserbatu nahi duten partikularrentzat ere.

○ **Asteko erabilerak**

Ikasturtean zehar, asteko erabilera eskaerak idatziz helarazi behar zaizkio herriko etxeko Elkarrean zerbitzuari (gutun edo mailez) maiatzaren 1a eta 31a artean, iraila eta ekaina bitarteko sasoiarentzat.

Abuztu bukaeran, herriak oren tarteetan banaketa jakinaraziko die erabiltzaile ezberdineri. Urtero egutegi bat adosten du herriak, elkarrekin kontzertazioan.

○ **Eskaera bereziak**

Eskaera bereziak, hautatu data baino hilabete bat lehenago jakinarazi behar dira. Erreserbak gauzatuko dira herriko etxeko zerbitzuak onartu ondoren.

Ekitaldien antolatzaileek hitzemaiten dute baimena duten administrazio eta erakundeei (SDIS, segurtasun batzordea...) galdeginen dietela, indarrean diren testuek eskatzen dituzten baimen guziak.

Edari salmenta, anartekoa izan ere, herriaren baimenarekin ireki daiteke soilik. Antolatzaileak gakoak herriko etxera itzuli beharko ditu edo herriko gutun ontzian.

○ Kasu bereziak

Frontoia eta boletako terrenoa libreki baliatu daitezke. Errugbi zelaia errugbiaren praktikarako lehenetsiak dira. Beste erabilera batzuetarako, aintzinetik herriko etxeari idatziz eskatu behar zaio. Zelai nagusia konpetizioetarako erreserbatuak dira. Hala ere, eguraldiak hala eskatzen badu, kirol-aktibitateak geldituko dira, lursailen egoera zaintzeko. Erabaki hori tokiko agintaritzak, kirol-federazioek edo epaileak hartzen ahalko dute partidaren egunean.

Muskulazio gela Azkaineko elkartearen lizentziaduneri bakarrik irekia zaie. Segurtasun arrazoinengatik, heldurik gabe, ezingo da haurrik onartu. Era berean, gela hori ezingo da inoiz ere jostatzeko edo zaintzeko gela gisa erabili. Bi erreserba konkurrente izanez gero, lokalak azkaindar elkarteei emango zaizkie lehentasunez, eta galderen ordenaren arabera. Gelen esleitzea auzapez jaunaren eskumena da, edo haren ordezkorena. Onartua da aukeren arabera.

5.artikulua : egoitzen erabilera

a- Araudi orokorra

Betebehar orokorrak :

- Lege eta araudiak errespetatzea, ordena publikoari, lasaitasunari eta auzotarrei buruz.
- Baimendutako pertsona kopuru maximoa errespetatu gelaka eta segurtasun arauak.
- Heltzean, atzemandako garbitasun-egoeran itzultzea lekua, aldagelak, dutexak eta komunak eta horien inguruak barne. Egoitzen eta zelaian entretenimendu orokorra herriaren esku dira. Aldiz, usaiaz kanpoko zikintasuna ikusten bada,

zigorrak hartzen ahalko dira, hots lokaletan sartzeko betiko debekua.

- Hondarinen bereizketa egin eta zakar ontziak hustu kanpoko gunean.

- Zentzuz erabili berogailua, ura eta argia.

- Herriko etxeko esku-hartzeak, bisitak, konponketa ttikiak edo handiak onartzea, horien arrazoia, izaera eta iraupena edozein izanik ere.

Debeku orokorrak :

- Lekua, materiala eta sokorri elementuak suntsitzea. Materiala edo egoitza hondatzen bada, agiri bat egingo da. Lokalak konpontzeko edo materiala berritzeko gastuak erabiltzaileen gain izango dira.

- Nahitara, baloia edo pilota murruek kontra botatzea debekatua da adibidez.

- Kirol geletan sukaldatzea eta apairuak antolatzea, herriko etxeak baimendu salbuespenetatik kanpo.

- Kirol-eremuaren barnean, motordun ibilgailuz zirkulatzea, zerbitzu publikoko ibilgailuak eta elkartearen ibilgailu baimenduak izan ezik. Edozein gisaz, ibilgailuen abiadura 10km orenekoan mugatua da.

- Bizikleta, roller, skate-board eta ibilgailuak sarraraztea gelen barnera.

- Egoitzen zolan edo barnean hondakinak uztea.

- Hondarindegira botatzekoak diren hondakinak zakar ontzietan botatzea.

- Berogailuen edo elektrikaren kontrolagailuak unkitu.

- Jantzkeraren desegokia izatea, mozkorra izatea.

- Egoitzetan eta kanpoko zelaietan animalia batekin egotea, baita sokaz atxikia edo besoetan eramanda ere. (itsu-txakurrak eta laguntza-txakurrak izan ezik.),

- Substantzia, objektu edo produktu lanjeros bat ekartzea,

- Zigarreta edo zigarreta elektronikoa erretzea kiroldegia barne aldean,

- Aktibitate desegoki edo arriskutsu bat praktikatu,

- Herriko etxeak onartu ez dituen ekipamendu osagarriak instalatu edo gehitu egoitzetan.

b- Aktibitatearen kudeaketa**Aktibitatearen kudeatzearen betebeharrak :**

- Egoitzaren erreserbatzerakoan herriari jakinarazi kirol jarduera praktikatzea. Aktibitate aldaketak jakinarazi behar zaizkio herriari,
- Ekipamenduak pertsona heldu baten aitzinean (erakasle bat eskolentzat, hezitzaile bat elkarreentzat edo taldeko arduraduna)
- Segurtasun kontsignak, urgentziazko irteera plana ezagutu eta aplikatu behar dituzte arduradunek.
- Kirol aktibitateetako zapata garbiak eta egokiak erabiltzea, lokalean sartzeko erabili ez direnak.

- Saioak hasi aintzin, arduradunak lekuen egoera aztertu behar du. Arazo bat balitz, herriko zerbitzuak abisatu beharko ditu.

Saioen ondotik arduradunak kontrolatu behar du :

- 1-Aldagelen eta dutxen egoera
- 2- Zaborrik ez dela zolan
- 3- Materiala behar bezala bildua dela
- 4- Ate, ateka eta sokorri ateak hetsiak eta libre direla
- 5- Nehor ez dela egoitzaren barnean
- 6- Argi guziak itzaliak direla

c- Iragarki-Afitxatze

Debekatua da :

- Afitxaketa leku komunetatik kanpo afitxatzea
- Komunikazio iraingarri, arruntak, herra bultzatzen dutenak edo pertsona fisiko edo juridikoari, umiliazioa eragiten diotenak erakustea,
- Sindikatu, talde politiko edo erlijiosu baten promozioa egiten duen dokumentu bat afitxatzea. Herriko langileek edozein inskripzio kentzeko baimena dute.
- Murruetan kortxet edo iltzeak sartzeari...

6.artikulua : Kirolgiko materialaren erabilera**a) Herriko etxearena den materiala**

Kirol-aktibitateetako material arrunta muntatu eta desmuntatzeko ardura erabiltzaileak izango du, betiere taldeko arduradunak, edo bere ardurapean. Funtzionamenduaren ezaugarri teknikoak ezagutu behar ditu.

Edozein erabilera aintzin eskura duen materialen funtzionamendu egokia bermatu beharko du.

Arazo bat balitz, herriko etxea berehala jakinean eman beharra du.

Kontuan hartu behar da materiala lekuz aldatzeko eta erabiltzeko arauak bete behar direla. Elkarre baten esku utzitako materiala ez da egoitzatik atera behar.

b) Erabiltzaileena den materiala

Elkarteei biltzeko guneak ematen zaizkie.

Kiroldegian dauden eta erabiltzaileena den materialen erabilera, mantenimendua eta kontrola haien ardurapean egongo da.

Horretarako ezarritako lekuetan bildu beharko dira, erabilera bakoitzaren ondotik. Gainerako erabiltzaileek ez dituzte inola ere baimenik gabe erabili behar.

Erabiltzaileek, beren jarduerarako beharrezkoak diren material eta/edo ekipamendu ttiikien jabeek, segurtasun-arauak betetzen dituztela ziurtatu beharko dute, eta hori frogatzeko gai izan beharko dira.

7.artikulua : Sarbide kontrola

Geletara sarbidea eta ibilgailuen sarbidea zelaietara posible dira gako batekin. Astero erabiltzen dituen elkarte bakoitzari, beharrezko dakoak emanen zaizkio.

Giltzak galtzen edo hausten badira, berehala herriko etxea abisatu beharko da berriz egiteko gisan. Kiroldegia alarma eta bideozaintzapean ezarria da

8.artikulua : Gutunontzia

Herriko etxeak gutunontziak jartzen ditu elkartearen eskura. Gogoan izan elkarteek Kiroldegian izan dezaketela posta-helbidea.

Elkarte batek Kirol Guneko lokaletan posta-helbidea izateak ez du erran nahi, elkartearen egoitza juridikoa edo bankukoa denik.

Helbidea : Complexe sportif Andde Luberriaga / NOM ASSOCIATION / 195 Impasse kiroleta/ 64310 ASCAIN

9. artikulua : Asurantzen erantzunkizuna

Erabiltzaileek duten ardura :

- Okupatzen duten gelaren irekitze eta heste.
- Okupatzen duten gelaren ardura, erabileraren eta egoera,
- Instalazioen erabileraren ondorioz gerta daitezkeen istripuak Erantzunkizun hori eraikinarekin, kanpoaldearen edo barnealdearen zein altzarien gainean izan daitezkeen kalte materialei ere aplikatuko zaie.

Herriko etxeak ez du erantzunkizunik izango :

- Kiroldegiko lokaletan, zelaian edo aparkalekuan egindako lapurretan
- lokaletan gordetako materiala edo elikagaiak kontserbatzean,
- Eraikinarekin mugako lekuetan aparkatuak diren ibilgailuetan gerta daitezkeen kalteak.
- elkarrekin diren altzariak, haien artxiboak edo elkarteek utzitako beste objektu batzuk, izan beraiekin edo herriko etxearen biltza eremuetan, izan kiroldegiko beste gune batean. Edozein funditze edo galtze erabiltzailearen kontura izango da.

Elkarte bakoitzak, jabetza hartu aintzin, aseguru-kontratu bat sinatu beharko du nahitaez, eta kontratu horrek bere okupazio eta jardueraren ondorioz edo bere afiliatuen jardueraren ondorioz sor daitezkeen kalte guztiak estaliko ditu. Agiri bat utzi beharko da herriko etxean urtero. Kontratu horrek nahitaez jaso beharko du herriko etxearen kontrako errekursoari uko egiteko klausula bat.

10.artikulua : Segurtasun arauak

Elkarte guziek eraikinen barnean agertzen diren segurtasun-kontsigna orokorren berri

izan beharko du, eta horiek oso-osorik betetzeko engaiamendua hartu beharko du.

Bestalde, erabiltzaileak segurtatu behar du larrialdi ateratzerak beti libre egoten direla.

Lokala okupatzen den bitartean, erabiltzailea arduratuko da hartzen duen jendearen segurtasunaz eta, bereziki, larrialdi- eta ebakuatze prozeduraz.

Sute bat gertatuz gero, erabiltzaileei eskatzen zaie bete ditzatela segurtasun arauak eta bete dezatela ebakuazio-plana, laguntza-irteera bakoitzean jarriak diren bezala.

Segurtasun kontsignen aplikazioari buruzko informazio biltzaile bat programatuko da egoitzaren erabiltzaile elkartearen arduradunen artean.

Ez da onartuko egoitzen zerratzeko herriko etxearen heste sistemaz kanpoko edozein sistemarik, ate azpiko ziriak debekatuta dira.

Elkartea engaiatzen da bere kideen eta harengana hurbiltzen den edozein pertsonari segurtasun-arauak errespetaraztea bisitak, biltzaileak edo manifestazioak direla eta.

Elkarteak taula elektrikoak edo berogailuak ez manipulatzeak edo aldatzeko engaiamendua hartzen du (bereziki EDF taula) gasarekin edo su har dezaken edozein ekaiekin funtzionatzen duen ekipamendurik ez ekartzea edo instalatzea (ezantza, fuel-olio, etb). Erabileran gertatzen den edozein gorabehera (edo anomalia) berehala jakinarazi beharko zaio elkartearen zerbitzuari edo deipean den hautetsiari.

11.artikulua : araudiaren errespetua

Araudi hori behar bezala betetzen ez dela egiaztatuz gero, arau-hausleak bere kontrako zigorrak jasotzen ahalko ditu : Ohar bat, lokala erabiltzearen baimena kentzea hiru hilabetez, eta neurri hori areagotu egin ahal izango da urtebetez erabat salbuetsi arte berrizkatu ez gero. Eskubide osoko betearazlea bilakatzen da erabiltzaileari jakinarazten zaionetik.

Herriko etxeak izaera politikoa, kulturala, esoterikoa, sektarioa edo ordena publikoaren kontra doan edozein biltza ezeztatzeak eskubide badu, eperik gabe.

12.artikulua : Kontrola

Herriko etxeak, edo hark agindutako beste edozeinek, betiko izango du gela barnean sartzeko eta askatasunez zirkulatzeko

eskubidea, segurtatzeko araudia ongi betetzen dela eta erabilera kontrolatzeko.

Agenteen aginduak ez betetzeak edo arau-hausteez okupazio-baimena aldi baterako edo behin betiko kentzea ekar dezakete.

Auzapeza,

Jean Louis FOURNIER